

# ZORROTZA AUZOAN UDAL ORTUEN ERABILERA- ETA APROBETXAMENDU-BAIMENAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK (2022-2025)

Bilboko Udalak eskuragarri jarri du ZORROTZA auzoan, Marino Archer kalean, daukan lursail bat (katastroko identifikazio-zenbakia: 5910) herritarrek espazio bat izan dezaten ortuzaintza ekologikoa lantzeko, naturan egoteko eta espazioa eta esperientziak partekatzeko auzokoekin. Auzoko Bihotza Proiektuaren markoan dago proiektua.

Auzo-ortuen proiektua eskaintza pedagogikoa eta ekologikoa da. Haren bidez espazio publikoa jartzen da auzokoen esku, lurra modu ekologikoan landu eta norberak kontsumitzeko produktuak eskuratzeko. Era horretan, gainera, ingurumen-heziketa eta dinamizazio soziala hedatu nahi dira, bai eta jarreraren eta balioen aldaketa sustatu ere, jokabide parte hartzaile eta arduratsuak sortuko dituztenak. Osasun ona izateko elikadura osasuntsuak duen garrantziaz jabeatzeko balioko du proiektu honek eta bertako barazki-motak erabiltzearen garrantziaz sentsibilizatzeko ere bai. Izan ere, espezie horiek gure inguruan ondoen egokitzen direnak dira eta beraz, zainketa eta tratamendu gutxiago behar dituzte, eta gainera, landa-eremuko tradiziozko praktikak eta ezaguerak transmititzeko aukera errazten dute.

Bilboko eraztun berdearen barruan, auzoetako ortuak adin guztietako pertsonen aisialdia eta hezkuntza-jarduerak bultzatzeko bitartekoa dira. Euren bidez, dinamizazio soziala eta ingurune naturalaren sustapena lehenetsi eta garapen iraunkorra babestuko duen kulturaren eta aisialdiaren alorreko alternatiba sortu nahi da.

Halaber, naturaren espazio estrategiko txikiak bultzatzeko bide dira. Bertan, herritarren hainbat sektoreekin ingurumen-hezkuntzako kanpainak egin ahal dira, eta era horretan, naturaren prozesuez eta bizitza-zikloez ikasteko behatoki bihurtu. Azken finean, norbere bizipenen bidez, Natura errespetatzearen garrantzia eta gure hiriko garapen iraunkorraren beharra ulertzen ahalbidetzea.

## **1. artikulua.- Helburua**

Oinarri hauek Zorrotzako Marino Archer kaleko partzelako (katastroko partzela-zenbakia: 5910) auzoko ortu modularren erabilera- eta aprobetxamendu-baimenak emateko prozedura arautzen dute.

## **2. artikulua.- Ortu modularren deskribapena:**

19 baratze modular baimendu dira, eta horietako bakoitzak L formako bi jardinera ditu eta 13,44 m<sup>2</sup> inguruko azalera ditu.

Moduluak banakoak dira.

Euren artean L forma eginez elkartuta, ontzi handi bat osatzen dute. Hau dago ontzian: Irekitako goiko aldean, lurra.

Barrualdean, uraska handi bat, ureztatzeko ura eta euri-ura biltzen dituen, substratua iragazita.

Harraska bat, uraskako urez elikatzen dena, ureztatu eta garbitzeko.

Espacio pribatu bat, estalkiarekin eta giltzarekin, lanabesak eta abarrak gordetzeko.

Lursailean erabiltzaile guztientzako etxola bat egongo da. Barruan, banakako armairuak, prestatzailearentzako espazio bat eta komun bat egongo dira.

Edtaeko uraren iturri bat eta lanabesak gordetzeko unitateak.

Ortuak loteka emango dira, onuradunen arabera:

1. Auzokoen lotea.
2. Auzoko denbora luzeko langabetuen lotea.
3. Desgaitasunen bat duten auzokoen lotea.
4. Auzoko irabazi asmorik gabeko elkarteen lotea, lehentasun hauen arabera:
  - a. Zorrotzakoak
  - b. Ingurumena sustatzea xede dutenak
  - c. Gazteek osatutako elkarreak.
  - d. Emakumeek osatutako elkarreak.
  - e. Gizarte-kohesioa xede duten elkarreak
  - f. Beste batzuk

### **3. artikulua.- Izaera eta araubide juridikoa.**

Ortu modularrak erabiltzeko baimenak Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legean nahiz Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia onartzen duen ekainaren 30eko 1372/1986 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera arautuko dira. Era berean, Espazio Publikoaren Ordenantzaaren arabei loturik egongo dira (Osoko Bilkuraren erabakiz 2010eko irailaren 23an onetsia).

Udala denez lursailen jabea, Udalak berak izango du haien administratu, kudeatu eta zuzentzeko eskumena. Horri dagokionez, Udalak eskubidea izango du ortu modularren antolaketan eta banaketan aldaketak egiteko, gorabeherari edo ustekabekoei edo ezinbesteko arrazoiei aurre egiteko.

Baimena prekarioan ematen denez, edozein momentutan baliogabetu edo aldatu daiteke arrazoi justifikatuak badaude, hala nola baldintzak ez betetzea edo ezinbesteko arrazoiak, betiere behar bezala justifikatuta; hortaz, titularrak ez du inola ere eskubiderik izango kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko.

Udalak ez du batere erantzukizunik izango onuradunek, jardueraren ondorioz, jasandako edo eragindako kalteengatik, ez eta onuradun horiek hirugarren batzuei eragindako kalteengatik ere, halakorik eraginez gero.

Udaleko organo eskudunak ebatziko ditu baimenaren interpretazioari, aldaketari, amaierari eta ondorioei buruzko auziak. Organo horren erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearaztekoak izango dira. Erabakion aurka aukerako berrikusteko errekurtsua aurkeztu ahal izango da edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua administrazioarekiko auzien jurisdikzioko epaitegi eta auzitegien aurrean.

#### **4. artikulua.- Baimenaren iraupena.**

Baimena bi urteko eperako emango da, esleipena formalizatzen denetik edo ortua emateko akta izenpetzen denetik zenbatzen hasita, eta urtebetez luzatzeko aukera egongo da.

Bi urteko hasierako epea bukatzen denean, bi alderdiek ez badute era fede-emailean baimenari uko egiteko edo hura ezeztatzeko nahia aditzera ematen, beste urtebetez luzatuko da automatikoki.

Baimenak emateko itxaron-zerrendara (ordezkoak) jotzen bada, onuradunek partzela erabiltzeko baimenaren gainerako eperako erabiliko dituzte ortuak, deialdi publiko berria egin arte. Pertsona horiek lursailak berritzeko deialdira aurkez daiteke.

#### **5. artikulua. - Erabileraren araubidea**

Instalazioen sistema guztiaren funtzionamendua nekazaritza ekologikoko irizpideetan oinarrituko da bakar-bakarrik. Ekoizpen ekologikoan lurra lantzeko praktikak izango dira bakar-bakarrik lurzoruko materia organikoa atxikitzen eta gehitzen dutenak, haren egonkortasuna eta biodibertsitatea sendotzen dituztenak eta trinkotzea eta higadura saihesten dituztenak.

Debekatuta daude beren-beregi, bestelako jarduerak, produktuak saltzea, biltegiatzeak nahiz edozein fabrika-obra egitea barne. Betebehar hori ez betetzeak baimena besterik gabe ezeztatzea dakar.

Pertsona edo elkarte onuradunek nekazaritzako praktika ekologikoak ezagutzen dituztela egiaztatu beharko dute. Horretarako, hasieran, nahitaez joan beharko dute nekazaritza ekologikoari buruz Udalak antolaturiko prestakuntza-saio praktiko batera. Halaber, finkaren ingurumen-kudeaketan parte hartu beharko dute, bai eta ingurumen-hezkuntzaren arloko programetan ere.

Ortuetako ordutegia: udazkenean eta neguan, 08:30etik 18:30era bitartekoa, eta udazkenean eta udan, 08:30etik 21:00etara bitartekoa; asteburuetan ez da ordutegia aldatuko.

#### **6. artikulua. - Debekuak**

1. Debekatuta dago fauna harrapatzeko tranpak edo harrapatze-metodo ez-selektiboak erabiltzea, eta harrapatzeko jakiak jartzea, pozoia izan zein ez.
2. Debekatuta dago espezie exotiko inbaditzaileak –animaliak zein landareak- sartzea ortuen esparruan.
3. Ezin da animaliarik hazi, ez eta zuhaitzekin heskaia egitea eta ondoko ortuari eguzkia galarazten dioten zuhaitzak landatu ere. Halaber, ezin da espezie exotikorik, tropikalik, psikotropikorik eta legez debekaturik hazi, ez eta lurzoria degradatzen duen landararik ere.

4. Debekatuta dago txabolak nahiz beste elementu finko edo desmuntagarri batzuk jartzea –hala nola, olanak, plastikoak, bidoiak, bankuak, kutxak, banantzeko elementuak– eta/edo edozein obra egitea. Udalaren berariazko baimena beharko da elementu berriak jartzeko edo daudenak aldatzeko. Baimen hori idatziz eskatu beharko da, eta bide bera erabiliz erantzungo zaio eskatzaileari.
5. Ortuak nekazaritza-erabilera izango du bakar-bakarrik, eta nekazaritza-ekoizpen ekologikoari buruzko araudian ezarritako printzipioak bete beharko dira. Horrenbestez, debekatuta dago ortuko laboreetan nekazaritza ekologikoaren arloan indarrean den legediak onartzen ez dituen herbizidak, pestizidak eta ongarririk kimikoak erabiltzea.
6. Ez da onartuko espezie transgenikorik edo genetikoki eraldatutako espezierik erabiltzea.
7. Debekatuta dago animaliak paseatzea ortuen esparruan.
8. Debekatuta dago ortuan jasotako produktuak saltzea.
9. Debekatuta dago sua egitea ortuen esparru osoan, edozein helburu duela ere.
10. Ezingo da manipulatu edo aldatu ur-hargunearen instalazioa. Ez da onartuko ur-mahukarik erabiltzea, ez lursaila ureztatzeko, ez ureztatze-sistema alternatiboren bat hornitzeko. Debeku hori salbuetsi ahal izango da desgaitasuna duten pertsonen lursailetan; hala ere, horiek berariazko baimena eskatu beharko diote Udalai mahuka erabiltzeko.
11. Esleitutako ortua ezingo zaio beste inori laga edo eskualdatu, Administrazioak berariazko baimena eman ezean.
12. Ortuen esparrua ezingo da bizilekutzat erabili, ez modu iraunkorrean, ez behin-behinean.
13. Baimenik gabe, esparruan ezin da ibilgailu pribaturik sartu edo aparkatu.
14. Debekatuta daude eragozpenak edo kiratsa sorrarazten duten bestelako erabilerak eta jokabideak, bai eta ortuen gainerako erabiltzaileen erabilera edo atsegina murrizten dituzten edo inguruneari eragiten dioten erabilerak eta jokabideak ere.
15. Debekatuta dago ortuetan sartzeko giltzak inori lagatzea ez baldin badu udal-arduradunen berariazko baimenik.

Artikulu honetan zerrendatu diren klausulak ez betetzeak ortua erabiltzeko baimena kentzea ekarriko du.

## **7. artikulua.- Onuradun izateko baldintzak**

Zorrotza auzoan erroldatutako pertsonak aurkez daitezke.

### **7.A. Pertsona fisikoek bete beharreko baldintzak**

1. lotea: auzokoak:

- Zorrotza auzoan erroldatuta egotea.
- Bilboko Udalarekin zorrik ez izatea.

2. lotea: langabezian luzaroan dauden pertsonak:

- Zorrotza auzoan erroldatuta egotea.
- Langabezian luzaroan dagoela ziurtatzea (LANBIDEn agiria).
- Bilboko Udalarekin zorrik ez izatea.

3. Lotea: desgaitasuna duten pertsonak:

- Zorrotza auzoan erroldatuta egotea.
- Desgaitasuna, organo eskudunak ziurtatua.
- Bilboko Udalarekin zorrik ez izatea.

**7.B. Irabazi asmorik gabeko elkarteek bete beharreko baldintzak**

1. Bilboko Elkarten Erregistroan izena emanda egotea.

Bilboko irabazi asmorik gabeko elkarten lotean lehentasun-hurrenkera hau ezarri da:

- a. Zorrotzakoak.
- b. Ingurumena sustatzea xede dutenak.
- c. Gazteek osatutako elkarteak.
- d. Emakumeek osatutakoak.
- e. Gizarte-kohesioa xede duten elkarteak.
- f. Beste batzuk\*

2. Bilboko Udalarekin zorrik ez izatea.

**7.C. Errolda-helbide bakoitzeko gehienez ere, ortu modular bat esleitu ahal izango da.**

Ezin izango dira aurkeztu aurreko baimen-aldian 36 hilabetez edo gehiagoz beste eremu batzuetan lursail baten titular izan diren pertsonak.

36 hilabeteak kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko Covid-ak eragindako konfinamendu orokorreko hilabeteak, hau da, 2020ko martxoaren 16tik maiatzaren 6ra bitarteko egunak.

Lursailik geratzen bada eman gabe hautagairik ez dagoelako, Udalak aukera hauetako bat hartu ahal izango du:

1. Hutsik geratu diren ortuak berriro esleitu, beste lote batera.
2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren udal-ortuen proiektuan parte hartzeko interesa agertu duten pertsonen ematea baimena.<
3. Bigarren zozketa egin beste eremu batzuetako ortuetako itxaron-zerrendako

pertsonen edo elkarteen artean, lursaila erabiltzen jarraitu nahi dutenean.

Modulu bakoitzean, gehienez ere, 4 pertsona aritu daitezke lurra lantzen. Guztiak ere Bilbon erroldatuta egongo dira eta udal arduradudunen berariazko baimena izango dute.

Behin lursaila adjudikatuta, titularrak berariazko baimena eskatu beharko dio Udalari gainerako pertsonentzat; horretarako, NANaren edo legezko bestelako agiriaren kopia aurkeztu beharko ditu.

Ortu modularrak loteka banatuko dira, irizpide hauen arabera:

- 1. lursailetik 7. lursailera, eta 15. 20rate, auzoko bizilagunentzat.
- 13. eta 14. lursailak, langabezia luzaeroan dauden auzoko pertsonentzat.
- 9., 10. eta 11. lursailak, desgaitasun fisiko edo intelektualen bat duten pertsonentzat edo elkarreentzat.
- 8. lursaila, Bilboko irabazi asmorik gabeko elkarreentzat, behar bezala inskribatuta badaude Elkarteen Udal Erregistroan.
- 12. lursaila Bilboko Eskolako Agenda 2030ekin zerikusia duten jardueretarako eta ingurumen arloko hezkuntzarako izango da.

## **8. artikulua.- Onuradunen eskubideak**

Auzoko ortuak erabiltzeko baimenaren onuradunek honako eskubide hauek izango dituzte:

1. Esleitzen den unean, ortu modularra ezarritako ordutegian erabiltzeko eta gozatzeko egoera onean izatea.
2. Nekazaritza ekologikoari buruzko aurretiazko prestakuntza eta etengabeko aholkularitza jasotzea.
3. Guztiontzako ekipamendua (banako armairuen etxola) erabiltzea. Ortuko produktuak autokontsumorako erabiltzea.

## **9. artikulua.- Onuradunen betebeharrak**

Auzoko ortuak erabiltzeko baimenaren onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Norberarentzako lanabesak erostea lurra lantzeko: jorraia...
2. Esleitutako ortua egoera onean eduki eta mantentzea, eta okupatzen den espazioa eta gainerako instalazioak ondo zaintzea, egoerarik onenean segurtasunaren, osasunaren nahiz apaintasun publikoaren aldetik; eremu komunak garbitzeaz eta esparruaren mantentze orokorraz ere arduratuko dira.
3. Sortzen diren hondakin organikoak kudeatzea, gero berriz ongarrizat erabiltzeko.
4. Sortzen diren gainerako hondakinak behar bezala bereiztea eta dagokien edukiontzira botatzea.

5. Pasabidetarako gordetzen den tokia libre eta garbi edukitzea.
6. Erruz edo zabarkeriaz hondatzen edo galtzen diren ondasun edo ekipamenduak konpontzeko edo ordezteko betebeharra.
7. Lurra irizpide ekologikoei jarraituz erabiltzea; horren inguruan Udalak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira.
8. Ureztatzeko ura modu arduratsuan kontsumitzea.
- .
9. Nekazaritzako sasoiaren barruan, ortu modularra jarraitutasunez lantzea. Kausa justifikaturik gabe, bi hilabete baino luzaroago ortua landu barik badago, erabiltzailea –pertsonek nahiz elkarte- proiektutik kanpo utziko da, eta ortua beste eskatzaile bati lagako zaio.
10. Landutako barazkiak jaso eta kontsumitzeko interesik ez duenak, jakinarazi proiektuaren arduradunei, ortuariak helburu sozialak dituzten erakundeetara bidera ditzaten.
11. Antolatzen diren dinamizazioko eta ingurumen-hezkuntzako jardueretan laguntzea, hala nola, ortuko produktuen erakusketetan, jardunaldi didaktikoetan, eta programatzen diren gizarte-dinamizazioko gainerako jardueretan –esleipendun elkarteek zein udalaren ekimenez antolatutakoak.
12. Udalak ortuekin zuzenean lotuta antolatzen dituen ikastaro eta jardunaldietara joatea.
13. Udaleko langileek edo horretarako izendaturiko erakundeak edozein unetan instalazio guztiak –banakoek zein guztiek erabiltzekoak– ikuska ditzan uztea, araudia zuzen betetzen dela egiaztatze aldera.
14. Era berean, gogorarazten da jardueraren ardura duen udalak izendatutako pertsonaren jarraibideak errespetatu behar direla uneoro.

Artikulu honetan zerrendatu diren betebeharrak ez betetzeak ortua erabiltzeko baimena kentzea ekarriko du.

## **10. artikulua.- Solaskidea**

Ortuen erabiltzaileek pertsona bat edo bi aukeratu beharko dituzte, haien ordezkari izateko eta Udalarekin bitartekari-lana egiteko.

## **11. artikulua.- Eskariak aurkezteko lekua eta epea**

Zozketan parte hartzeko, interesa duten pertsonak edo elkarteek beren eskabideak baldintza-orri honen I. eranskinean jasotako eskabide-ereduaren arabera bete beharko dituzte, eta eskatzen diren agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

Eskabideak bete eta gero, modu hauetako batean aurkeztu beharko dira:

1. Bilboko Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Ernesto Erkoreka plaza 12) edo barrutietako udaltegietako erregistroetan, astelehenetik barikura, 08:30etik 14:00etara. Hitzordua

hartuta.

2. Udalaren webguneko [www.Bilbao.eus](http://www.Bilbao.eus) egoitza elektronikoaren bidez (e-Udala), izapideen atalean [\[https://www.bilbao.eus/aytoonline/jsp/instanciageneral/login.jsp?idioma=c\]](https://www.bilbao.eus/aytoonline/jsp/instanciageneral/login.jsp?idioma=c).

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua aurreikusten dituen bideak erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskariak.

Eskabideak aurkezteko epea 20 lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Errolda-helbide bakoitzeko, gehienez ere, eskari bat aukeztuko da eta lursail bat esleitu ahal izango da.

## **12. artikulua.- Aurkeztu behar diren dokumentuak**

Lursailen zozketan onartuak izateko, eskaria behar bezala beteta (l. eranskina) aurkezteaz gain, interesdunek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1. Desgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak:
  - Erakundearen edo elkartearen formalizazioaren eta estatuuen eguaztagiriak.
  - Esleitutako baratzearen bidez bazkideekin aurreikusitako ustiapen pedagogikoko jardueren memoria.
  - Elkartearen ordezkaria, udalarekin hitz egiteko.
2. Luzaroan langabezian dauden auzoko pertsonak:
  - LANBIDEn ziurtagiria, langabezia-egoeraren antzinatasun-data eta luzaroko langabe egoera jasotzen dituenak.
3. Irabazi asmorik gabeko auzoko elkarteak:
  - Udalarekin bitartekari-lanak egiteko ordezkaria nor izango den eta haren NAN/AIZren fotokopia.
  - Esleitutako baratzearen bidez bazkideekin aurreikusitako ustiapen pedagogikoko jardueren memoria.

## **13. - Ortuak esleitzeko eta baloratzeko prozedura:**

Eskabidean, eskatzaile bakoitzak zein lotetara aurkeztu nahi duen, lote bakarra izango da, aukeratu beharko du.



- a) Auzokoen lotea: eskari gehiago badago ortu baino, zoketa egingo da.
- b) Luzaroan langabezian dauden auzokoen lotearen esleipena: eskari gehiago badago ortu baino, zoketa egingo da.
- c) Desgaitasunen bat duten auzokoen lotearen esleipena: eskari gehiago badago ortu baino, zoketa egingo da.
- d) Irabazi asmorik gabeko Bilboko elkarteen lotearen esleipena: Puntu bidezko esleipena:

Elkarte bakoitzak lor dezakeen gehieneko puntuazioa:

- a. Zorrotzakoek. Gehienez ere 6 puntu.
- b. Ingurumena sustatzea xede dutenek: gehienez ere 5 puntu.
- c. Gazteek osatutako elkarteek: gehienez ere 4 puntu.
- d. Emakumeek osatutako elkarteek: gehienez ere 3 puntu.
- e. Gizarte-kohesioa xede duten elkarteek: gehienez ere 2 puntu.
- f. Beste batzuk: puntu 1.

Berdinketa badago, elkarteek aurkeztutako proposamena baloratuko da. Hain zuzen ere, memoria edo txosten bat aurkeztu beharko dute, elkartearen helburuak eta udal ortu ekologikoen proiektuan aurreikusitako helburuei dagokienez lurzatiari eman nahi dioten erabilera azaltzeko.

#### **14. artikulua.- Balorazio Batzordea**

Balorazio Batzordeak parte hartzeko behar diren agiriak aztertuko ditu, prozesuan onartuen behin betiko zerrenda osatuko du, balorazioa egin, eta pertsonak eta elkarteak proposatuko ditu, baimenaren onuradun izan daitezzen.

Batzordeko kideak izango dira:

Zuzendaritzako kideak:

- Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.

Teknikariak:

- Kideak: Ingurumeneko Sailataleko burua
- Kideak: Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko teknikaria.
- Idazkari-lanak Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Euskarri Juridikoko teknikariak egingo ditu.

#### **15. artikulua.- Onartuen zerrenda**

Eskabideak aurkezteko epea bukatu eta gero, Balorazio Batzordeak agiriak behar den epean eta moduan aurkeztu diren aztertuko du, bai eta zozketan parte hartzeko behar diren agiriak egiaztatu ere, onartuen eta ez onartuen zerrenda osatzeko.

Zerrenda hori Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, eta hamar eguneko epea emango da eskabideen akatsak zuzentzeko, halakorik egonez gero.

Akatsak zuzentzeko epea igaro eta gero, onartuen behin betiko zerrenda argitaratuko da iragarki-taulan eta udalaren webgunean.

Iragarki berean adieraziko dira zoketa publikoaren lekua, eguna eta ordua.

Eskabiderik ez dagoelako loteren batean lursailen bat hutsik geratzen bada, Udalak erabakiko du zein loteri esleitu, Balorazio Batzordearen irizpide arrazoituaren arabera.

## **16. artikulua.- Behin-behineko zerrenda eta itxaron-zerrenda**

Adierazitako lekuan eta datan zozketa egin ondoren, partzelen esleipendunen behin-behineko zerrenda eta itxaron-zerrenda osatuko dira.

Elkarteentzako lursailen kasuan, puntuen arabera esleituko dira, aurretik ezarritako irizpideei jarraiki. Puntuazioetan berdinketarik badago eta eskatzaile guztiei esleitzeko behar beste lursail ez badago, elkarteak aurkeztutako proiektuaren ebaluazioa hartuko da kontuan izango da berdinketa ebazteko.

Eskabiderik ez dagoelako loteren batean lursailen bat hutsik geratzen bada, Udalak erabakiko du zein loteri esleitu, Balorazio Batzordearen irizpide arrazoituaren arabera.

Balorazio Batzordeak lursailen loteak esleitzeko proposamena egin eta gero, esleipendunen behin-behineko zerrenda osatuko da, eta jendaurrean jarriko da Udalaren iragarki-taulan eta webgunean. Haren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira hamar laneguneko epean, zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera.

## **17. Artikulua Behin betiko zerrenda eta itxaron-zerrenda**

Epea erreklamaziorik gabe igaro eta gero edo, aurkeztu badira, halakoak ebatzi eta gero, Gobernu Batzordeak erabakia hartuko du, erabiltzeko baimenen onuradunen sailkapena onartzeko. Gero, baimenak formalizatuko dira, Udalak nekazaritza ekologikoari buruz emango duen prestakuntza jaso dela egiaztatuta eta gero.

Era berean, behin betiko itxaron-zerrenda osatuko da. Zerrenda horretan, baldintzak bete arren, lursail baten onuradun atera ez diren eskatzaileak egongo dira.

Gobernu Batzordeak onartzeko erabakia hartu eta gero, onuradunen zerrenda eta itxaron-zerrenda Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko dira, onuradun bakoitzari behar bezala jakinarazteaz gain.

Zerrenda horren aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Edo zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien Epaitegietatik egoki den hartan, hilabete biko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

7. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela eta nekazaritza ekologikoaren arloko prestakuntza jaso dutela egiaztatzen denean, behin-behineko esleipendunak behin betiko esleipendun bihurtuko dira. Aldiz, emandako epearen barruan oinarrietako baldintzak betetzen ez badira, ortua libre geratuko da, eta berriz esleituko da, itxaron-zerrendako hurrenkerari jarraituz. Itxaron-zerrendara jotzen denean, onuraduna edo onuradunak ortu modularra erabiltzeko baimenaren epeari hurrengo deialdira arte falta zaion aldirako lirateke esleipendun, itxaron-zerrendan egondako pertsonak edo pertsonak deialdi berrian lehenetsun bat izan zein ez esleipen berriari begira.

## **18. artikulua.- Baimenak formalizatzea eta fidantza**

Baimenak emateko prozesua amaitu eta behin betiko itxaron-zerrenda osatu eta gero, ortuak erabiltzeko baimenak formalizatuko dira; onuradunek egiaztatu behar dute Udalak emandako prestakuntza-ikastaroa egin dutela. Prestakuntza saio honetara joatea ezinbesteko baldintza da partzelak erabili ahal izateko. Prestakuntzara joaten ez bada, uko egin zaiola ulertuko da.

Administrazio esleitzaleak fidantza bat ezartzeko aukera izango du, 50 eurokoa, eta lursailaren onuradun gertatu den pertsonari giltzak eta baimena entregatzeko unean jari beharko du.

Fidantza hau baimena amaituta itzuliko da, baimena baliogabetzean edo uko egitea gertatuz gero, eta onuradunak giltzen multzoa itzultzen duenean eta haren baratze modularra eta aldagetako armairua egoera onean daudela egiaztatzen denean .

## **19. artikulua. - Baimena azkentzea eta ezeztatzea**

Jabari publikoko ortuak ustiatzeko baimena ondorengo kausengatik azkenduko da:

- Borondatez uko egitea edo baja hartzea, Udalaren erregistroan idazkia aurkeztuz.
- Abisatu barik, bi hilabete baino luzarago ortua zaindu barik edukitzea, instalazioen mantentze-lanetako arduradunek egiaztatuta.
- Baimendutako pertsona hiltzea edo desgaituta geratzea.
- Bi alderdiek horretan ados jartzea.
- Baimena iraungitzea edo muga-eguna iristea.
- Esleipena eragin zuten zirkunstantziak desagertzea
- Esleipendun izateko betebeharrak betekizunak ez betetzea.

Administrazioak baimena errebokatu ahalko du edozein unetan, aldebakarreko erabakiz, interes publikoko arrazoiengatik edo baldintza-agiri honetako baldintzak ez betetzeagatik, eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe.

# I. ERANSKINA

ZORROTZA AUZOAN ORTU MODULAR EKOLOGIKOAK ERABILTZEKO BAIMENAREN DEIALDIAN PARTE HATZEKO ESKARIA.

Izen-abizenak:

NAN:

Helbidea:

Telefono finkoa:

Eskuko telefonoa:

Helbide elektronikoa, jakinarazpenetarako:

HAU ESKATZEN DU:

Zorrotza auzoan ortu modular bat erabiltzeko BAIMENA emateko prozesuan parte hartzea. Halaber, aitortzen du Gobernu Batzordeak 2022ko martxoaren 30ean onartutako oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, eta horiek ezagutzen eta onartzen dituela.

LOTEA .....

Agiri hauek erantsi ditu:

## Luzaroan langabezian dauden auzokoentzako lotea:

LANBIDEREen ziurtagiria, langabezia-egoera eta horren antzintasuna egiaztatzen duena.

## Desgaitasunen bat duten pertsonentzako edo haien elkarteentzako lotea

➤ Elkarte bada:

Erakundearen edo elkartearen sorrera ziurtatzen duen agiria eta estatutuak.

Ortua erabilera pedagogikorako erabiltzeko proposamena.

## Irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako lotea:

- Elkaratearen jardueren proposamena.
- Irabazi asmorik gabeko elkaratearen ordezkarien izendapena (gehienez, 2).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, **interesdunak EZ du aurkeztu behar** Bilboko Udalak edo beste erakunde batek lehendik bere esku daukan dokumentazioa; izan ere, Udalak egoki diren agiriak kontsultatu eta bilduko ditu, **salbu eta kontsulta horren AURKA agertzen bada eta hala adierazten badu behoko laukitxoan eta funtsatzen badu. Kasu horretan, interesdunak agiri horiek aurkeztu beharko ditu.**

**Udalak kontsulta hauek egitearen KONTRA nago:**

- Bilbon erroldatuta dagoen edo ez (Kontra egonez gero, honako hauek aurkeztu behar dira: "Familiaren errolda-agiria, NAN, AIZ edo pasaportearen zenbakiak dituelarik agerian")
- Ba ote daukan zorrik Bilboko Udalarekin (Kontra egonez gero, "Bilboko Udalarekiko ordainketetan egunean izatearen ziurtagiria" aurkeztu beharko du)
- Ba ote duen desgaitasunen bat (Kontra egonez gero, "Desgaitasunaren ziurtagiria" aurkeztu beharko du)
- Izen emanda ote dagoen Bilboko Elkarteen Erregistroan.

**Honako arrazoi hauengatik:** \_\_\_\_\_

Bilbon, 2022ko .....aren .....(e)an.

Eskatzailearen sinadura:

- Deialdi honetako oinarriak irakurri ditut eta onartzen ditut.



